

2018-11-27ko OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2018ko azaroaren 27an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian, Marta Castrillo Iturralde eta Jesús María Alonso Insausti.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Inor ez.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Jose Ignacio Imaz Bengoechea, Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Olaia Nieto Legarra eta Mikel Gotzon Iturbe Saizar.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Inor ez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkari kontu-hartzaileak egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak hasitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

AURREKO AKTA ONARTZEA (2018-10-30).

Idazkariak adierazi du 2018ko urriaren 30eko akta gaur bukatu duela eta datorren udalbatzan onartuko dela.

Ainhoa Ugalde (EH Bildu) adierazi du bere taldeak beti esaten duela aktak egunean izatea, gero oso zaila delako gogoratzea.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2018/185 DEKRETUTIK 2018/204 DEKRETURA BITARTEAN.

Alkateak 2018/185 dekretutik 2018/204 dekretura bitartekoen berri eman dio Udalbatzari.

Eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA

IRURAKO UDALETXE BERRITZEKO PROIEKTUAREN PARTE HARTZE PROZESUARI BURUZ ERABAKI PROPOSAMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Udalbatzak 2018ko maiatzaren 29an egindako bileran honakoa erabaki zuen:

1.- Partaidetzazko deliberazio-prozesu bat onartzea “Udaletxea osorik berritzeko eta zabaltzeko” proiektua idazteko oinarrizko zuzentarauak prestatzeko.

2.- Gai hauen inguruan eztabaidatuko da:

- a) Proiektuaren ekarpenak, ideiak eta hobekuntzak.
- b) Eraikinaren goiko solairuan aurreikusitako eremu libreari zer erabilera eman diezazkioketen.

Halaber, erabaki zen prozesuaren garapenari buruzko ondorioak eta egindako iradokizun eta ekarpenak kanpo-enpresa baten txostenean jasota uztea.

Prozesua ekainaren 19tik 30era egin zen, eta aholkularitza-enpresak prozesuaren garapenari buruzko txosten bat egin zuen eta iradokizunak edo ekarpenak jasota utzi zituen.

Hori ikusita, Udalak gai horren inguruan

Por acuerdo del Pleno de este Ayuntamiento en sesión celebrada el 29 de mayo de 2018, se adoptó el siguiente acuerdo:

1º.- Aprobar un proceso de deliberación participativa para elaborar las directrices fundamentales para redactar el Proyecto de “Reforma Integral y Ampliación de la Casa Consistorial”.

2º.- Los temas de deliberación serían los siguientes:

- a) Aportaciones, ideas y mejoras al Proyecto.
- b) Aportaciones a los posibles usos del espacio diáfano previsto en la planta superior del edificio.

Así mismo se acordó que la forma de conclusiones fuera un informe de la empresa externa sobre el desarrollo del proceso y las sugerencias o aportaciones realizadas.

El proceso se desarrolló del 19 al 30 de junio y por parte de la empresa consultora se ha elaborado informe sobre el desarrollo del proceso y las sugerencias o aportaciones realizadas.

Ante ello procede adoptar el acuerdo municipal que proceda sobre la cuestión de fondo, teniendo en cuenta que de acuerdo con lo dispuesto en el art.77 de la Ley 2/2016 de 7

erabaki behar du, aintzat hartuta Euskadiko Tokiko Erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 77.artikuluak honela dioela:

“Prozesu hauetan udalak hartutako erabaki oro arrazoituta egon behar du, bereziki tokiko erakundeak deliberaziozko prozesuaren ondorioetatik aldentzea erabakitzen duenean”.

Aintzat hartuta prozesu parte-hartzailean balioesten dela orokorrean udaletxea aldatu eta gaur egungo beharretara egokitu behar dela, irisgarritasun-terminoetan bereziki.

Aintzat hartuta txosten teknikoak ikusita ez dela bideragarritzat jotzen eraikinaren kanpotik igogailua egitea.

Prezioa egokitzeari dagokionez (eraikinari solairu berria gehitzea), ondorio ekonomiko txikia izango du obraren guztizko kostuan, eraikinari hirugarren solairua jartzeari dagokionean.

Azkenik, aipatu behar da soilik proiektuaren idazketarekin jarraitzea edo ez dela erabaki beharrekoa.

Hori ikusita, Udalbatzak onartu du, bost(5) alde (EAJ/PNV) eta lau (4) abstentzio (EH Bildu) hartzea honako

ERABAKIA

“Udaletxea osorik berritzea eta hirugarren solairua jartzea” idazketarekin aurrera jarraitzea.

*EH Bildu udal-taldeak adierazi du ez dutela parte hartuko bozketan eta legearen arabera joera hori abstentzioa da.

Eztabaida:

Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) adierazi du oso larria iruditu zaiola erabaki hau. Orain arte aurreproiektua bakarrik eduki arren proiektua egitea erabaki dela, eta oso garestia dela, berrogeita hamar mila eurokoa alegia, obra ez egiteagatiko kalte-ordaina aparte. Gainera, jende asko dagoela proiektuaren

de abril de Instituciones Locales de Euskadi:

“Cualquier decisión municipal en estos procesos deberá ser motivada, especialmente en aquellos casos en que la entidad local acuerde apartarse de las conclusiones del proceso deliberativo”.

Considerando que en el proceso participativo, en general, se valora la necesidad de realizar una modificación y actualización del edificio de Casa Consistorial a las necesidades actuales, sobre todo en términos de accesibilidad.

Considerando que de acuerdo con los informes técnicos no se ve la viabilidad de realizar un ascensor externo al edificio.

En la posibilidad de ajustar el precio (aumentar en una planta el edificio), su repercusión económica es reducida en el costo total de la obra respecto a dotar de una tercera planta al edificio.

Por último señalar que este acuerdo se reduce solamente a continuar o no con la redacción del proyecto.

Ante ello, la Corporación acuerda , por cinco(5) votos a favor(EAJ/PNV) y cuatro(4) abstenciones (EH Bildu) , lo siguiente:

ACUERDO

Continuar con la redacción de “Reforma Integral y Ampliación de la Casa Consistorial” con una tercera planta.

aurka. PNVk esan du behintzat proiektua egitea pentsatu dutela, eta gero erabakiko dutela aurrera eraman edo ez, hauteskondearen emaitzak ikusita. Partaidetza-prozesuaren emaitzak aurkeztu dituzte; tranpak ditu, ordea. Horren arabera, 35 herritar daude proiektuaren alde baina emaitzek kontrakoa erakusten digute: 40 herritar metodologikoki kontra; 7 herritarren iritziz oso proiektu handia da; 7 herritarren ustetan aldaketa zehatzak egin behar dira, baina ez direla hain sinpleak; 5 herritar aldaketen aurka agertu dira eta besteak kanpo geratu dira errespetuz ez jokatzegatik. Beraz, hauek dira emaitzak: 59 aurka eta 35 alde.

Gainera, ez da izan benetako parte-hartzea, bakarrik galdetu da zer ekarpen egin nahi zaion aurkeztu den proiektuari eta zer egin hirugarren solairurekin. Gehienek zalantzan jartzen dute proiektua eta horregatik PNVri galdetu diote emaitza horiek nondik atera dituen, alegia, gehiengo proiektuaren alde dagoela.

Alkateak erantzun du Gipuzkoako Foru Aldundiak 2012an Irurako HAPO onartu zuela, eta, han, udaletxea zabaltzea onartzen dela. 2018ko urrian HAPOren bigarren aldaketa argitaratu da, hirugarren solairua eraikitzea ontzat emanaz. 2017an prozesua egin zuten 5 arkitekto udaletxea berritzeko beren proposamenak aurkezteko aukera izan zezaten. Geroago, arkitekto baten aukera onartu zen eta aurreproiektua idatzi zen.

Aurreproiektuan oinarritzen den aukerari buruzko partaidetza-prozesua egin dute. Herritarrek bi galderei erantzun beharko diete: batetik, zer iritzi duten proiektuari buruz, eta, bestetik, zer erabilera eman dakioken hirugarren solairuari. 94 pertsonen idatziak aurkeztu ziren eta bost pertsona bakarrik tailerrean. Aurreproiektuaren arkitekto-egileari txostena eskatu zaio eta beraren iritziz igogailua kanpotik egiteak eraikinaren barrua desorekatuko du. Hirugarren solairuaren inguruan 23 herritarrek proposamenak egiten dituzte, 19 herritarrek ez dute beharrezkoa ikusten eta 17 herritarren ustez orain bertan erabilerarik ematen ez badiote ere epe luzera aukera ona izan daiteke. Irisgarritasunari dagokionez, eraikina lotsagarri dago. Ezkontza batean, adibidez, gonbidatuetako batzuk lehenengo gelara igo ezinik geratu ziren, igogailurik ez dagoelako.

Udaleko langile guztiekin bilerak egin dira sail bakoitzak zer behar dituen aztertzeko.

Horregatik proposatu da udaletxe osoa berritzea eta hirugarren solairua egitea, haren kostua aintzat hartuta, eta idazketarekin jarraitzea.

Mikel Iturbek (EH Bildu) erantzun du aurreproiektua egin duen arkitektoari eskatu diotela txostena egiteko, eta horregatik haren neutraltasuna zalantzan jartzen duela. Prozesua ez da bidezkoa izan, aurreproiektua diru-laguntzak eskatzeko bakarrik egin zelako. Prozesu horretan alkateak txantxetan esan zuen ez zekiela noiz edo nork egingo zuen obra eta bat-batean hasi dira proiektua egiten.

Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) adierazi du hirigintzaren antolamenduan aukera izatea eta aurrera eramatea bi gauza desberdin direla.

Olaia Nietok (EH Bildu) esan du hainbat eraikinetan igogailuak kanpotik eraiki direla eta harrigarria iruditzen zaiola esatea eraikin honetan ezinezkoa dela, eta agian beste arkitekto bati eskatu beharko litzaiokeela txostena egiteko. Erantsi du 2019ko maiatzean tokiko hauteskundeak izango direla, eta proiektuaren kostua ikusita, gaia hauteskundeen ondorengorako utz daitekeela.

Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) Bilduren proposamena azaldu du, alegia, ados daudela eraikin honetan moldaketa batzuk egitearekin (irisgarritasuna, termitekin amaitzea, barruko instalazioak aldatzea...), ez, ordea, zabalkuntzaren, eta ez dutela horren aldeko txostenik ikusi ere. Ezta udal-langileen iritzia jasotzen duen txostenik ere. Halaber, esan dela hirugarren solairua egiteak kostu txikia duela, 200.000 eurokoa, baina diru horrekin haur -eskola berria egin dela. Iruran diru asko dago. Haien proposamena argia da: guztien inplikazioarekin (alderdi politikoak, teknikariak eta herritarrak) udaletxea berritzeko irizpideak azter ditzatela. Epe luzerako inbertsioa da eta denon artean erabaki behar da, Tolosako Udalean egingo dutelako.

LAUGARREN GAIA

IRURAKO UDALEKO 2018KO AURREPROIEKTUAREN 1º. KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIENTEAREN ONARPENA, HALA BADAGOKIO.

2018ko Aurrekontuaren barruan 1º Kreditu Aldaketaren espedientea aurkezten da:

1º.-GASTUEN HAZKUNDEA: +70.500€

1º.-KAPITULUA (Pertsonal) :+20.000€

Kopurua	Aldaketa	K. Osoa
880.450 €	+20.000€	900.450€

2º.-KAPITULUA (Gastu Arruntak) : +20.000€

Kopurua	Aldaketa	K.Osoa
564.000€	+20.000€	584.000€

7º.KAPITULUA (TRANSF.) : +27.000 €

Kopurua	Aldaketa	Osoa
75.000€	+27.000€	102.000€

8º.-KAPITULUA (Aktibo) : +3.500€

Kopurua Aldaketa Osoa

500€ +3.500€ 4.000€

2º.-FINANTZAZIOA: 70.500 €

A)SARREREN HAZKUNDEA: +70.500 €

Partida	Kopurua	Aldaketa	Osoa
2.0000.114.00.00.2018 (Plusbaliak)	15.000€	+40.000€	55.000€
2.0000.710.00.00.2018 (Eusko.Jaurl.)	0€	+30.500€	30.500€

Idazkari-Kontuhartzailaren txostena ikusita.

Hori ikusita eta 5 boto alde (PNV/EAJ) y eta 4 abstentzio (EH Bildu), udalbatzak hau onartu du (Kopiatu).

Lehena.- Behin-behinean onartzea 1 kreditu-aldaketaren espedientea, 2018ko ekonomia-ekitaldiaren aurrekontuarena.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea 15 laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, erreklamazioak aurkezteko aukera egon dadin.

Inork erreklamaziorik aurkezten ez badu, behin betiko onartu dela joko da.

Halaber, espedientearen laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, kapituluka.

Hirugarrena.- Horrez gain, eta indarrean dagoen legediarekin bat,

Primero.- Aprobar inicialmente del Expediente de Modificación de Créditos nº 1 del Presupuesto del ejercicio económico de 2018.

Segundo.- Someter el expediente a información pública por el periodo de 15 días hábiles, mediante publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a efectos de reclamaciones.

En el caso de que no se presente ninguna, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo.

Así mismo se deberá publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el resumen por capítulos del expediente.

Tercero.- Además y de acuerdo con la legislación vigente, se adjunta

aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna betetzeari buruzko txosten bat erantsi da, eta, ondorioz, Udaltzari honako hau jakinarazi zaio:

- A) 2018ko aurrekontuaren barruan, 1. kreditu-aldaketarako espedientearen proposamenak aurrekontu-egonkortasuneko eta gastuaren erregelaren helburuak ez dira betetzen .
- B) Baina ez da behar Plan Ekonomiko Finantzario prestatu behar, bakarrik likidazioan ez ba dira betetzen .

informe sobre el cumplimiento de la normativa en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera y en consecuencia se comunica al Pleno lo siguiente:

- A) Que la Propuesta de Expediente de Modificación de Créditos nº 1 dentro del Presupuesto de 2018 no cumple con el objetivo de estabilidad presupuestaria y regla de gasto.
- B) Pero con esto no cabe como consecuencia la elaboración de un Plan Económico-Financiero, solamente si en la liquidación se incumplen esos objetivos.

Eztabaida:

Ainhoa Ugaldek (EHBildu) adierazi du bere taldea abstenitu egin dela, udaletxea berritzeko eta proiektuaren idazketa ordaintzeko berrogeita hamar mila euro geratzen direlako aurrekontuan, eta aurreneko puntuan argi geratu dela zer iritzi duten.

BOSGARREN GAIA

28 KANALAREN DIRULAGUNTZA ESKAERA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Udal honek euskararen erabilera soziala suspertu nahi du. Ildo horretatik, 28 Kanala Tolosaldeko euskarazko komunikabideetako bat dugu. Telebista, irratia eta webgunea dira 28 kanalaren euskarriak, eta eduki guztiak euskara hutsean eskaintzen dira.

Gainera, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7.2 artikulua araberak, udalen berezko eskumenak dira, eskumen horretatik eratorritako ahalmen eta funtzioekin batera, haien lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzea eta erabilera dinamizatzea (...) edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatzeko eta dinamizatzeke burutzen dituzte jardueren finantzaketan laguntzea.

Bestalde, Irurako Udalaren 2018ko aurrekontuan 2.000 euroko kreditua berezita dago 28 Kanalarentzako, partida honetan: 1.0000.481.335.00.00.2018.

Hori ikusita, Udaltzari hau onartu du, aldeko 5 botorekin (EAJ/PNV) eta 4 abstentziorekin (EH Bildu):

ERABAKIA

LEHENA.- 2.000 euroko dirulaguntza onartzea eta ordaintzea.

BIGARRENA.- Diru kopurua jaso aurretik, azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera, onuradunak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Nortasun egiaztagiria aurkeztea.
- b) Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.
- c) Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duen ziurtagiria aurkeztea.
- d) Aurkeztea, behar denean, baimendutako ordezkariak eginiko idatzia, ordaintzeko modua zehaztuz.

(Abstentzioa: EH Bildu) Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) adierazi du abstenitu direla ez dutelako jaso behar den dokumentazioa, Batzorde Informatiboen akta, hain zuzen ere.

SEIGARREN GAIA

AZAROAREN 25ERAKO (EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA) ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Mozio hau aurkeztu da:

õEMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNAö

õBiktimen erreparazioak emakumeei ahotsa ematea eskatzen du

Azaroaren 25a dela eta, Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Egunean, indarkeria matxistatik libre egongo den gizartea eraikitzearekin dugun konpromisoa berretsi nahi dugu. Era berean, nazioarteko marko juridikoarekin bat, berriz azpimarratu behar dugu **badagoela loturarik genero-arrazoiengatiko bazterkeria eta desberdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren artean**, azken hori emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa bat bezala ulerturik.

Testuinguru honetan, arreta jarri nahi dugu indarkeria matxistaren biktimek duten erreparazio-eskubidean. Erreparazio horrek **egiarako eskubidea** dakar; alegia, bizi izandako indarkeriaren, salaketaren eta emakumeen hitzen errelatoa egiazki entzuna izatea. Horren guztiaren xedea da hautsitako eskubideak lehengoratzea eta pairatutako indarkeriaren inpaktuak sozialki aitortzea. Indarkeria matxista hauek bizitzen dituzten emakumeen errelatoak zalantzan jartzen direnean, haien hitza gutxietsia izaten da, zikindua, are isilarazia. Halakoetan **biktimizazio bikoitza** gertatzen da: emakume biktimek jasandako minari lotsa eta erruduntasuna eransten zaio; bitartean, justifikatu egiten dira erasotzaileak.

Tokiko Erakundeetatik gure egin behar dugu gizarte bat eraikitzean daukagun ardura sozial eta politikoa, gizarte horrek biktimen egiarako eskubidea bermatuko badu. [BERDINSAREA](#)tik, Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako euskal udalen saretik, indarkeria matxistaren aurrean udal erantzunaren artikulazioa lantzen ari gara, nola-eta Istanbulen Hitzarmenaren markoa egokituz eta biktimen erreparaziorako toki-praktikak garatuz.

Ezinbestekoa da ematea ahotsa emakumeei, autoritatea beraien lekukotzari eta egiazkotasuna bizi izandako indarkeriari buruz egiten duten errelatoari. Horrek esan nahi du indarkeriaz beharturiko emakumeen hitza aintzatetsi beharra dagoela, haien askatasuna berrezarri, hartara bizirik atera den pertsonatzat har daitezen eta beren komunitateetan eskubide osoko duintasun- eta herritartasun-zentzua berreskura dezaten.

Horretarako, Udalek ondokoak gauzatzeko konpromisoa hartzen dugu:

- Zerbitzuak hobetzen lagundu, sostengu-zerbitzuzko sare bat gauzatzearekin batera emakumeei arreta osoa bermatzeko bere onera etor daitezen, ahalduntze feminista eta banakako erreparazioa ikuspegi nagusi harturik.
- Bizirik atera diren emakumeak entzun, prebentzio eta segurtasun neurriak diseinatzeko, emakumeei bizirauten eta babesten balio dieten aurre-emate estrategiak balioan jarritz.
- Emakumeen ondoan egon, laguntza-zerbitzuetatik hasita eta bizi izandako indarkeriari buruzko beraien errelatoa sortzeraino, ulertzen baita indarkeria hori menderapen- eta kontrol-mekanismoa dela, gizarte-sistema patriarkalean eraikia.
- Ekimen kolektiboek laguntza eman (laguntza-taldeak eta plataformak), hartara bizirik irtendako emakumeek indarkeria horri buruzko errelato kolektiboa landu dezaten eta hautsitako eskubideak zein erreparazioa aldarrika ditzaten.
- Biktimen salaketa- eta erreklamazio-prozesuetan laguntza eman, emakumeek adierazitako testigantza eta beharrak egiaztatzeko.
- Aldiro indarkeria matxistaren biktimen aldeko aitoren publiko eta erreparazioko ekitaldiak egin, indibidualak zein kolektiboak: emakumeen erresistentzia-memoria berreskuratzeko ikerketak; omenaldi-ekitaldiak; emakumeen memoria eta errelatoak jakinarazteko jardunaldiak; gazteekiko sentsibilizazio-tailerrak, e.a.
- Elkarlanean jardun mugimendu feministako ordezkariekin, adituekin eta indarkeria matxistatik bizirik irtendako emakume biktimen kolektibo eta elkarteekin.ö

Mozio hau ikusita udalbatzak, aho batez , onartu du.

ZAZPIGARREN GAIA

2018KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN ADIERAZPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Mozio hau aurkeztu da:

õBizi. Prest

Egunero delako euskararen aldia

Bizi. Prest.

Halaxe datorkigu euskara bere aurtengo Nazioarteko Egunean. Eta halaxe doa etorkizunerantz. Mingainetan, pantailetan, uhinetan bizi-bizi. Zernahitarako prest.

Etxean bizi-bizi, kalean bezala; bizi-bizi eskolako jolastokian, ikasgelan bezala; lantokian bizi-bizi, lagunarteko solasaldietan bezala; bizi-bizi osagilearenean, saltokian bezala; zuzeneko harremanetan bizi-bizi, birtualetan bezala; bizi-bizi kirolean, liburuetan edo zineman bezala.

Prest gaudelako gu, euskal herritar gehien-gehienok, hori horrela izan dadin. Prest gaudelako euskarari gure hitzen hegoak eskaintzeko, ahotik belarrira, bihotzetik bihotzera, burutik burura hegaldada dadin, samur bezain indartsu. Dakiguna dakigula, mintzatzen ez dena baita euskara eskas bakarra.

Prest gaude, eta gogotsu, euskarak gure ahoan bizi-bizi dantza egin dezan. Gogotsu gaude, eta prest, gure belarrietan atseginez onartzeko euskararen soinua. Dakiguna dakigula, entzuten ez dena baita euskara kaskar bakarra.

Prest gaudelako, eta ezin gogotsuago, euskaraz ere gero eta gehiago bizitzeko. Ingurune guztietan. Eginkizun orotan. Natural-natural. Bizi-bizi.

Euskal hiztunok horretarako egin behar dugun urratsa ez da txikia, ez erraza. Borondate aktiboa eskatzen digu. Erosokeriari izkin egitea eskatzen digu. Sakon errotutako ohiturak aldatzea eskatzen digu. Kontzientzia ahalegin sendoa eskatzen digu. Euskaraz ere herritar izateko aukera egitea eskatzen digu.

Eta eskatzen digu, batez ere, euskaldun izatetik euskaldun bizitzera doan tarte gaintzeko jokaera aktiboa. Eta etengabea.

Euskararen erabileran egin beharreko urrats erabakigarri hau zinez da gizarteraldaketa zabal sakona, neurri historikoa duena, gure gizartearen bilakabidean mugarri izango dena. Eta, neurri horretako aldaketa guztien antzera, adostasuna du elikagai nagusi, prestasun eta prestutasunarekin batera.

Euskararen gizartea. Gizartearen euskara

Adostasuna eta batasuna dira, beraz, bidea, euskarak batura behar duelako, ez kenketa; biderketa behar du, ez zatiketa.

Herri aginteak, gizarteak bere dinamika propiotik sorturiko erakundeak, herritar guztiok eta gutariko bakoitza: den-denok gara, aldi berean, euskararen erabilera eraginkortasunez areagotzeak ezinbestekoa duen adostasun zibil zabalaren osagai eta

eragile, aldi berean garen bezala haren onuradun eta bultzatzaile, bideratzaile eta babesle.

Baina aktibotasuna, praktikotasuna, da adostasun horren osagarri nahitaezkoa. Aski ez delako, honezkero, aldarrikapen hutsen linboan galtzen diren asmo arranditsuak plazaratzea. Atzean utzi behar dugulako beste inork euskararen alde egin lezakeenaren zain egotea. Lorgarria delako, erabat, euskararen erabilera hazkunde iraunkorraren bidean jartzea, baldin eta herritar bakoitzak euskara ezpainetara eramateko bere erabaki pertsonala gauzatzen badu, hori eta ez besterik delako, azken finean, gizartearen helburu kolektiboa: aukera pertsonal ugariaren batura.

Eta egin egingo dugu.

Munduari euskaraz ere helduz, euskararentzat belarria zein gogoa prest izanez, euskara ahoz zein idatziz bizi-bizi eskainiz. Euskarak eguneroko bizitza aberastu dezan; eguneroko bizitzak euskara bete dezan.

Elkarrekin.

Elkarrenganako errespetu osoz, elkarrengandik adorea jasoz.

Elkarri euskara eskainiz.

Euskara bizi-indarrez sendoagotuz.

Bizi. Prest.

Egunero delako euskararen aldia.ö

Eta udalbatzak, aho batez, udalbatzak onartu du.

Eztabaida:

Alkateak adierazi du datorren astelehenean, Abenduaren 3an, ikastola umeekin bilduko direla plazan, adierazpena irakurtzeko .

Ainhoa Ugalde (EH Bildu) adierazi du azaroaren 25eko adierazpena gaztelaniaz irakurri zela soilik eta koherente izan behar dela onartutako akordioarekin.

ZORTZIGARREN GAIA

UDALEKO EUSKARAREN ERABILERAREN PLAN ESTRATEGIKOA ETA EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA (2018-2020) ONARTZEA, HALA

1- Euskararen Erabilera Plana onartzea (2018-2022)

UEMArekin batera Irurako Udaleko autodiagnostikoa egin ondoren eta Bikain ziurtagiriko ebaluatzaile taldeak egindako ebaluazioa jaso ondoren, Irurako Udaleko euskara sailak Erabilera Plana (VI. plangintzaldia

2018-2022) osatu du eta batzordean aurkeztu dugu. 5 urterako erabilera plana izango da, eta bere helburu nagusia izango da Udal barruan euskararen erabilera indartzea eta areagotzea, bai zerbitzu hizkuntza bai lan hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatzeko eta herritarren hizkuntz eskubideei erantzun ahal izateko. Euskara plan honek markatuko ditu helburu nagusia lortzeko landu beharreko ildoak 5 urteetan zehar.

Kultura, Kirola, Euskara eta Gazteria batzorde informatiboak 2018ko azaroaren 21ean egindako bileran aldeko erabakia hartu du.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak oniritzia eman dio planari.

2- Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) onartzea (2018-2020)

Irurako Udaleko euskara sailak udalerrinari begira euskara sustatzeko abiatu dituen edo abiatu nahi dituen ekintzen plana osatu du. 5 urterako plana izango da eta bere helburu nagusia izango da udalerriko hainbat alor edo esparrutan eragitea, euskara sustatzeko eta erabilera areagotzeko, hala nola, familian, irakaskuntzan, euskalduntze eta alfabetatzean, administrazioan, alor sozio-ekonomikoan, aisian, kirolean, kulturgintzan, hedabideetan eta abar.

Plan hau diseinatzerako orduan aintzat hartu dira Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proposatzen dituen lan esparruak.

Hori guztia ikusita, Udalbatzak aho batez , hartu du honako ERABAKIA:

Lehenena.- Onartzea bai Udaleko Euskararen Erabilera Normalizatzeke Plan Estrategikoa (2018-2022, VI. Plangintza) eta bai Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP 2018-2020).

Bigarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari.

BEDERATZIGARREN GAIA

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAK.

Txosten hau jakinarazten da:

2018ko Ekitaldiko 1. Hiruhilekoan ordaintzeko batez besteko epa.

2/2012 Lege Organikoak , apirilaren 27koak Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzkoak , ezarri du batez besteko epearen kontzeptu (OBE) . Kontzeptu horrek xedatzen du zor komertzial ordaintzeko erabili den denbora edo izan den atzerapena. Horrela ,Administrazio Publiko guztiek, gardentasun ariketa berri batean , ordaintzeko batez besteko epea argitaratu beharko dute.

Atxikita dauden orrietan ,Irurako Udalaren 2018.3 hiruhilekoko ordainketa epeari buruzko txostenak aurkezten dizkizuet.

Hona hemen laburpena:

-3. Hiruhileko epea: 0,39 .

Eta udalbatzak aho batez jakinaren gainean geratu da.

HAMARGARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK.- Gai hauek jorratu dira:

- a) Alkateak adierazi du hurrengo osoko bilkura abenduaren 18an izango dela.
Jose Ignazio Imaz (EH Bildu) adierazi du 2019ko Aurrekontuari buruz bere taldearen erantzuna hondakinen bileraren ondoren emango dutela.
- b) Ainhoa Ugaldek (EH Bildu) adierazi du Jose Mari Mugika zoriondu nahi duela aizkolari txapelketan lehen mailara pasa delako.
Alkateak adierazi du denon artean zoriontzea.
- c) Herritar batzuk udaletxea berritzeko proiektuari buruz hitz egin dute.

OHARRA: eztabaida osoa jasota dago “www.irura.eus” helbidean.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:35ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA